



# Erregearen mezularia

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

erein

# Erregearen mezularia

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

Perzebal, 26

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko,  
nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra  
(Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

Azalaren diseinua:

Iturri

Azaleko irudia:

Aritz Albaizar

Maketazioa:

Erein

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2012

ISBN: 978-84-9746-747-6

L. G.: SS-799/2012

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.com](mailto:erein@erein.com)

[www.erein.com](http://www.erein.com)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

# Erregearen mezularia

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA



erein

*Nurri eskainia*

*Berri hau zabaldu zen bere aldeko batzuen artean.*

*Orduan mezulari bat zuzen-zuzenean Marokora abiatu zen Santxo erregearengana eta argi eta garbi esan zion:*

*“Nafarroako errege jauna, jakinean egongo zara seguru zure lurra eta zure herentzia galtzen ari zarela, Alfontso erregea, abaide zintzotzat daukazun hori, ezpataz eta su goriz sartu dela Nafarroan.*

*Eta hainbeste fidatzen zinen horri, jakinean egongo zara ez zaiola axola, eta jakinean egongo zara, bizkor itzuli ezean, galdua izango duzula zure erreinu osoa, oso bizkor gainera.*

*Eta ez zara orain arte ikusi zaitudan bezala biziko, zeren galdua baituzu Gasteiz, eta baita Araba ere, eta Gipuzkoa eta Ameskoa, dagokien guztiarekin, eta Hondarribia, eta hari dagokion guztia, eta Donostia, itsasoak jotzen duena, eta gogoan ez ditudan beste herri eta gaztelu asko.*

*Eta Nafarroa bakarrik utzi duzu jende paganoarengatik, eta Jainkoak zigortuko zaitu, behin eta berriro haserretu duzulako”.*

*Eta erregeak, hori entzunik, azkonak zulatuta edo altzairuzko aiztoak igarota baino odolduago zeukan bihotza, eta mairu erregearengana joan zen eta erabakitasunez esan zion:*

*“Errege jauna, zure adiskidetasunagatik eta zurekiko atsegin izateagatik eta zure etsaiak makurtzeko, nire lurra galdu dut, eta saminez dut bihotza, eta berehalaxe itzuli nahi dut hara, zeren bizkor ez banoa nire erreinua guztiz galduko dudala uste baitut”.*

*Erregeak hori entzun zuenean, damu izan zuen, eta itsasontziak apainarazi zituen harentzat, harribitxiak, urrea eta zilarra ugari eman zizkion, eta Jainkoak, ahaltsua baita, haizea alde eman zion Nafarroara itzultzeko.*

# I

## 1199ko martxoa

Udaberri egun eguzkitsu batez, Johan Izabakoak, Nafarroako Leireko monasterioko fraideak, tximeleta bat hilda aurkitu zuen, bere sendagaiak egiteko lahar-hostoak biltzen ari zela. Zantzu txarreko seinalea. Gero luzaro egon zen hegaztien hegaldiei begira. Enarak zeruan biraka hegan eta aire guztiak txiox betetzen ibili ohi ziren normalean; une hartan, ordea, galduta bezala zebiltzan eta izututa zebiltzala ziruditen hara eta hona. Poltsa hostoz bete gabe itzuli zen bere gelara, ohetzat zeukan ohatze gogorra mugitu zuen, eta pergamino-bilkari bat atera zuen berak zoruan zulatuta eta harlosa batez estalita zeukan ezkutalekutik; bildukina lotuta zeukan larruzko zerrenda askatu, pergaminoa bere sendagaiak prestatzeko erabiltzen zuen mahaian zabaldu eta errekatik ekarritako harri batzuk ertzetan jarrita zabalik eduki zuen.

Aspaldiko garai batean, artean oso fraide gaztea zela, landare, hosto eta zuhaitz-azalen bila egiten zituena ibili haietako batean, mendiko haitzulo batean sartu zen, zer ote zegoen jakin-minak eraginda. Haitzulo haietan bizi izan ziren paraje hartako lehenengo eremutarrak, eta orain animaliek baizik ez

zituzten erabiltzen, hotz egiten zuenean babesteko. Han barruan ez zen ikusteko handirik. Haitzulo txiki, ilun bat zen, armiarma-sarek eta ahuntz-gorotzez betea, baina gauza batek erakarri zion arreta. Harri-puska baten azpitik larru puskatxo bat ageri zen. Edozer gauza biltzeko ohiturak eraginda, jasotzeko makurtu zen, baina harriak azpian harrapatuta zegoen. Johan dena jakin-nahia zen eta, seguru asko ezer ez zen gauza batengatik lanak hartzerik ez zuela merezi iruditzen zitzaion arren, harria mugitu zuen, larru puska hura askatzeko, eta sekulako ustekabea hartu zuen. Pergamino-bilkari bat aurkitu zuen, hautsez betetako larru puska batean bilduta. Aurkikuntza harrigarri hura abadeari eramatea izan zen lehenengo bururatu zitzaiona, hark erabaki zezan zer egin; gero, ordea, hobeto pentsatu eta tunikapean ezkutatu zuen bilkaria.

Gau hartan bertan, bere gelako bakardadean, kandela baten argi zalantzatiaren azpian, irrikaz irakurri zituen esku dardarati batek nafarren antzinako hizkuntzan idatzitako hitz haiek; hizkuntza hura erabiltzen zen lurretan jaioa ez zenak ezin irakur zezakeen halakorik; hartan hitz egiten zekiten gehienek ere ez. Hasieran kosta egin zitzaion idazkera nahasi hura ulertzen, denborak oso lausotuak baitzituen, gainera, arrastoak. *Jakintzaren liburua* zuen izena liburu hark, eta ehun urte baino gehiago ziren Xemenon izeneko eremutar batek idatzi zuela.

Ikasketa hunkigarri bat izan zen beretzat. Irrikaz beterik itxaroten zuen egunero ilunpetako isiltasuna



noiz iritsiko. Poliki-poliki deszifratu zuen eskuizkribua, gauak egun eginez, nekerik batere sentitu gabe, zenbaitetan jatea, edatea edo otoitz egitea bera ere ahaztuta. Hura idatzi zuenak latinezko, grekozko eta arabierazko hitzak txertatzen zituen han eta hemen. Behin baino gehiagotan joan zitzaion hitz honengatik edo besteagatik galdezka Basilio, monasterioko liburutegiaren arduradunari; adineko gizon jakintsua zen; dozena bat hizkuntza edo gehiago zekizkien, aramaiera, Jesusen hizkuntza, besteren artean.

Batzuetan beldurra sartzen zitzaion Johani, eta zin egiten zuen hurrengo egunean bertan hartu eta abadeari eramango zizkiola pergamino haiak; gaueko atsedanak, ordea, burua argitzen zion eta jakin-mina areago pizten. Idatzi hura zenbat eta gehiago ezagutu, ordu arte ezagutzen ez zuen mundu zirrargarri batean sartuz zihoan. Xemenok antzinako jendeak etorkizuna iragartzeko erabiltzen zituen moduak era baliabideak deskribatzen zituen. Gogoan zuen inoiz irakurri izan zuela erromatarrek ez zutela lanik, erakuntzarik, erasorik edo konkistarik hasten aurrez orakuluei galdetu gabe. Nafar lurretara iritsi zirenean euskal aztien zerbitzuak ere eskatu zituztela, ospe handia baitzuten egiten zituzten iragarpenengatik. Gerta zitekeen bere asabaren bat iragarle haietakoa izatea, pentsatzen zuen, eta horrexegatik sentitzen zuen eskuizkribu hura irakurtzen jarraitu beharra, nahiz eta jakinean egon oker ari zela jokutzen. Izarrak irakurtzen, ametsak interpretatzen, haizearen hotsa

entzuten eta amaraunen enigma ezkutua deszifratzen ikasi zuen. Ur-putzuak eta lurpean zeuden metalak aurkitzeko hurriz-adarrak baliatzen ere ikasi zuen, eta baita errekarri leunak, alde batetik margotuak, lurrera jaurti eta haietan bere galderentzako erantzuna irakurtzen ere.

Errezeten eta irakaspenen artean, ordea, misterioz betetako esaldiak agertzen ziren han eta hemen, ulertzen zailak eta liburuan aipatzen ziren gainerako gaiekin zerikusirik batere ez zutenak. Denbora behar izan zuen misterio hura argitzen zuen erantzuna eskuizkribuan bertan zegoela —*Jakintzaren liburua*— ohartu zenerako. Egiatzko iragarpenak ote ziren gainerakoarekin loturarik ez zuten esaldi haiek? Eta, hala baziren, beteak ote ziren dagoeneko ala betekizun oraindik? Urduri, liburutegiko apaletan ordenarik gabe pilatuta zeuden dokumentuetan eta kroniketan bila eta bila aritu zen; Hispania osoko monasteriorik famatuenetako bat zen Leirekoa, lau mende lehenago Kordobako Eulogio santuak Hispaniako kristau monasterioak bisitatuz egin zuen bidaiaria famatu hartan ere gorai patua. Azkeneko ehun urteetara mugatu zuen batez ere interesa, zentzu onez ustez, eta ez oker, egiaz iragarpenak baldin baziren, ezin zirela izan idatzi zituena bizi izan zen garaia baino lehenagoko gertaerei buruzkoak; eta misteriozko esaldi haietako batzuk Nafarroako erreinuan azkeneko mendean izandako gertaerarik garrantzitsuenetako batzuekin lotzen ahalegindu zen. Gertaera haiek idatzi hartako esaldiekin lotzeko lan hura

lan neketsua izan zen. Bazirudien Xemenon hark baxterekin ordenarik gabe idatzi zituela bere iragarpenak, bururatu zitzaizkion ordenan, edo inspirazioak ekarri zitzaizkion ordena berean.

Behin fraide idazle ezezagun haren berri ba ote zuen galdetu zion Basiliori, eta oso begirada bitxia egin zion liburuzainak.

–Zergatik galdetzen duzu hori? –galdetu zion hark.

–Monasterioaren historia irakurtzen ari nintzela haren izena ikusi dut –esan zion gezur nabarmena–, Xemenon hark liburua idazten zituela esaten zuen...

–Bat idatzi zuen, eta Elizak kondenatu egin zuen.

–Heretikoa zen?

–Gezurrezko iragarlea zen –eta solaskideak jarri zuen harridurazko aurpegiak susmo txar guztiak ezabatu izan balizki bezala, jarraitu zuen–: Nire aurreko liburuzaina Leirera nobizio iritsi zenerako oso zaharra zen. Hark esan zidanenez, Gaizkiak mendean hartutako gizon baten itxura omen zuen. Hondamendiak iragarritik eta zentzurik gabeko gauzak esanez ibiltzen omen zen batetik bestera. Bere azkeneko urteetan mendiko haitzuloetan bakardadean bizitzera kondenatu zuten, eta idatzi zuen liburua desegin egin zuten.

–Zer esaten zuen? –galdetu zion Johanek.

Liburuzainaren aurpegia gogortu egin zen berriro, eta susmoaren distira agertu zen haren begiradan.

–Kristau zintzo bati axola dakiokkeenik ezer ez.

Liburuzain zaharrak horrenbestez solasa eten zuen, eta galdetzen jarraitzeko gogoarekin utzi zuen Johan. Solas hark are sendoagoa egin zuen Johanek eskuizkribua abadeari ez emateko hartuta zeukan erabakia; ez zion axola bere arima bekatuan egotea, une hartan bertan hiltzen baldin bazen –Jainkoari ez zekiola nahi– zuzenean infernura joateko arriskua bazuen ere.

Beste liburu asko bezala, Xemenoren liburua ere suntsitu egin behar zen. Elizak deabruaren gauzatat zeuzkan igarle-kontu guztiak, eta zigor astunen pean kondematuta zeuzkan igarleen, magiagileen, aztien, ijitoen eta etorkizuna irakurtzen ahalegintzen ziren guztien jarduera guztiak. Johanentzat, ordea, Allah-ren izena grabatuta zeukan bolizko kutxatxoa, monasterioan gordetzen ziren altxor guztietan prezia-tuena bezain baliotsuak edo baliotsuagoak ziren idazki haiek.

Aspaldiko kontuak ziren haiek dagoeneko. Bazituen urteak, urte asko, garai hauek txarrak baziren aurki are txarragoak izango zirela ez jakiteko. Zantzua, bidalitako seinaleak, gehiegi ziren dagoeneko, kontuan ez hartzeko. Fruituak erne baino lehen agortzen zen lurra; animaliak argalduta ibiltzen ziren soroetan eta belardietan, eta haien jabeak behinola izandakoaren itzala baizik ez ziren. Santxo Handia Nafarroako errege zen garai oparoez gero ezer ez zen lehen bezala. Kroniketan miresmenez aipatzen zuten errege hura, haren egitandiak eta konkistak gorai-patzen zituzten eta, hura hil zenez gero mende eta erdi

igaro izanagatik, herritarrek gogoan zeukaten oraindik. Goseak, gerrak, izurriek eta heriotzak, Apokalipsiko lau zaldunek, izumena zabaldu zuten jende xehearen artean, pobre zirenak pobregoa eginez eta aberatsak aberatsago.

Hori dena zurian beltz idatzita zegoen *Jakintzaren liburuan*. Johanez geroz eta argiago ikusten zuen hori, idazki hartako bertsoak ulertzea ohitu ahala. Eremutar hark iragarmen zorrotzez deskribatuak zituen Nafarroako historiaren azkeneko ehun eta berrogeita hamar urte haiek markatu zituzten gertaerak: heriotzak, guduak, hitzarmenak... Xemenoren kronologiari jarraituz, Antso erregearen, izen bereko zazpigarren eta Azkarra deituaren erreinuari zegokion hurrengo iragarpena; sei urte baizik ez zen erreinaldi hura hasi zenetik: “Arrano beltza hegan abiatzen da, eta haren habia lehoiaren mende geratzen”.

Arrano beltza Nafarroako erregearen zigiluan eta ezkutuan agertzen zen ikurra zen; lehoia, berriz, Gaztelaren marka zen. Fraideak mingaina klaskatu zuen, tupina txiki bat urez bete zuen, sendagaiak prestatzeko erabiltzen zuen sutxoaren gainean jarri eta zain geratu zen.

Santxo erregeak berrogeita sei urte zituela heredatu zuen koroa. Gizon garaia zen, erraldoia, eta indartsua, azkarra; hortik zetorkion ezizena. Akitanian eta Gaskoinian bere arreba Berengelarekin ezkondu zegoen Rikardo koinatuaren alde egin dako arma-egitandietatik zetorkiola ere esaten zuten zenbaitek. Nola nahi zela ere, bere mendekoen batez

besteko garaiera halako ia bi zuen gizon bat ezin izan zitekeen besteak bezalakoa. Herritar askok esaten zuten jentilen, gizakia mundu honetan azaldu baino lehen mendiotan bizi ziren izaki erraldoi haien ondorengoa zela izatez; haien aztarren asko geratzen ziren oraindik ere leku askotan, Alotzako zelaian, esate baterako, Aralar mendian, hantxe baitzegoen jentil batek Murumenditik harrika botatako harkaitz handi bat.

Johanek irribarretxo bat egiten zuen, eta ez zuen ezer esaten, nobizio gazteren bati elezaharretako izaki haiek aipatzen entzuten zionean. Santxo jauna oso pertsonaia berezia zen, egia da hori, baina beste gizaki guztiak bezalakoxea, nahiz eta jende xeheak mila dohainez apaindu –batzuk egiazkoak, beste batzuk ez hain egiazkoak–. Hura askoz gehiago kezkatzen zuen legezko oinordeko baten arrastorik ere ez izateak. Andre Konstantza erregina oinordeko bat ekarri gabe hil zen. Etorkizunak, hodei mehatxagarri estali berria zen zeru hark bezalaxe, ez zuen gauza onik iragartzen. Jainkoak Nafarroako erregea ondorengorik utzi gabe eraman nahi baldin bazuen, arrotzen eskuetara joango zen baskoien lurraldea. Ehun eta hogeitau urte lehenago Iruñeko erreinua galdu zen bezalaxe desagertuko zen; laurogei urte geroago azaldu zen berriro, zatituta eta bidegabe ebatsita, Nafarroako erreinuaren izena harturik.

Johan Izabakoak lapikotxoa sutatik kendu eta gopor batera isuri zuen ura; hori baino lehen buztinezko ontzi batean gordeta zeuzkan hosto eta hazi

nahaste bat jarri zuen han. Lurrean eseri zen goporra eskuetan zuela, eta bere gogoetan murgildurik geratu zen belar haien mugimenduari begira, urrin sendo batez hanpatuta zetorren lurrina arnasten zuen bitartean. Begiak itxi eta eginkizun hartan murgildu zen buru-belarri. Lurrin hark argitasun berezi bat zekarkion burura eta inoiz baino zehazkiago eta zorrozkiago pentsatzen laguntzen zion. *Jakintzaren liburuan* ikasia zuen hori ere. Behin baino gehiagotan pentsatu izan zuen hartaz baliatu izango zela Xemenon bere eskuizkribu hura idazteko. Gaua egun bihurtzen zen; buruhausterik nahasienak ere aise konpon zitezkeen jostailu bihurtzen ziren; arazo hutsalak alde batera utzi eta garrantzia zutenetan baizik ez zen kontzentratzen.

Gau hartan ohi baino luzeagoa izan zen fraidearen gogoeta, eta eguna argitu zenean gogoetan murgilduta zegoen oraindik ere. Monasterioko kanpaiak atera zuen gogoeta hartatik, goizeko lehenengo otoi-tzerako, primarako deia joz. Gaueko jarrera berean zegoen oraindik, goporra eskuetan zuela. Nekez zutitu zen, soinatalak beila luzeak lotuak bezala baitzitu.

–Ai, Johan... –esan zuen bere buruari ozen hitz eginez–, hire gorputz errukarri horrek ez dik luzaro iraungo.

Pergaminoak bildu eta ezkutalekuan gorde zituen berriro. Zertan geratuko ote zen *Jakintzaren liburu* hura, gutxien uste zenean, halaxe izaten baitzen beti hiltzeko ordua, Jainkoak bere aurrera deitzen baldin

bazuen? Urte haietan guztietan behin baino gehiagotan sentitu zuen bere sekretu hura beste fraideren bati azaltzeko tentazioa. Aldekoak eta kontrakoak neurtu zituen eta, batez ere, kontu handiz aztertu zituen bere erlijio-kideak, gazteenak batez ere, baina bat ere ez zitzaion iruditu, haien artean, gauza horietarako fidatzekoa. Denbora aurrera zihoan, ordea. Lehentxeago edo geroxeago norbait bilatu beharko zuen. Ezin zuen utzi Xemenoren lan baliotsu hura edozein trauskilen eskuetara joaten edo liburutegiko apaletan galtzen, beste hainbat obra bezala, saguek edo hautsak janda bukatzeko.

Berandu iritsi zen otoitzera. Fraideek denboratxoa zeramaten antzinako salmoak kantatzen bera kaperan sartu eta bere lekura joan zenerako. Seguru zegoen inork ez ziola hori kontuan hartuko, dagoeneko zaharra zelako eta jende guztiak zeki-elako, gainera, erabat ahazten zuela denbora monasterioko ospitaleari halako ospea ematen zioten sendagai haiek prestatzen buru-belarri aritzen zenean, monasterioko farmazia, izan ere, nekez bai nekez iristen zen Nafarroako zoko guztietatik etortzen zitzaizkion sendagai-eskariei erantzutera.

Berriro bere gelara itzuli zenean, Johan Izabakoak luma hartu, tinta-ontzian sartu, eta mezu labur bat idatzi zuen pergamino mehezko zatitxo batean; bildu, lakratu eta usategira joan zen. Denbora behar izan zuen bila ari zen usoa aurkitzeko; lepoaren inguruan zinta gorri bat zuen uso bat zen; eta mezua eskuineko hankan lotu zion.



–Ez galdu bidea eta ez zaitzala belatzak harrapa  
–esan zion, hegan bidali baino lehen hegalak laz-  
tanduz.

Denboratxo bat egon zen usoak zerurantz hegan  
nola egiten zuen, bere gainean bira batzuk egin eta  
mendirantz nola abiatzen zen ikusten.